

Masterra komunikazioan trebatzeko

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak antolatu duen master profesionalak “Euskarazko komunikazioa eta hizkuntza gutxituak” du izena.

Helburua: aro digitalaren garai honetan kazetari onak eta euskaldunak trebatzea.

ONINTZA IRURETA



EHUK antolatutako masterraren berri emateko bideoa jarri dute irakasle-ikasleek www.euskarazko-komunikazioa.info helbidean. Lau irudiak komunikazioa ardatz duen bideoko zatiak dira.

700 KAZETARI INGURU ari da komunikazioaren alorrean euskaraz lanean. Askok hobetu da urteotan, baina asko dago egiteko, hala uste du behintzat Txema Ramirez de la Piscina EHUKo irakasle eta masterraren arduradunetako batek. 2007-2008 ikasturteko masterraren bidez indarguneak sendotu nahi dituzte eta gabeziak estali.

Ez da ezerezetik sortu masterra, azken bost urteotan Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak “Euskal Herria XXI” doktorego programa eskaini du eta horren segida da. EHUKo bost departamentu ari dira masterra antolatzen: Kazetaritza eta Kazetaritza II, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea, Euskal Filologia eta Soziologia.

Unibertsitatetik kanpo, laguntza ekonomikoa eskuratu du masterrak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzaren bidez. Bestalde, hainbat enpresa eta erakundetan praktikak egin ahal izango dituzte ikasleek: EITB, *Berria*, ARGIA, *Elhuyar*, Topagunea, *Aldaketa 16*, UEU, EHU eta Eusko Ikaskuntzan.

Zientzia kazetariei hurbiltzeko ikasgaia

Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkari erredakzio kideak, Beñardo Kortabarrak, emango du Zientziaren dibulgazioa izeneko ikasgaia. Dibulgazio zientifikoak toki gutxi du kazetarien unibertsitateko ikasketetan, baita zientzialarien ikasketetan ere. EHU bertan oso gutxi lantzen dute. Kortabarrak adibide bat jarri digu: "Bedera-tzi urte daramatzat Elhuyarren eta lan-postuetarako probak egitera 200dik gora lagun etorriko zen. Horietatik bakarrak zeukan eginda dibulgazio zientifikoari buruz ikastaro bat. Ez zuen euskaraz egin ikastaroa. Hautatzen ditugun kazetariak ez daude prest zuzenean lanean hasteko, prestaketa behar dute". Batetik, unibertsitatean ez dute ikasten kazetariak, eta bestetik, zientzia hedabideetan nola landu behar den oso gutxi teorizatu da euskaraz. Aurreiritziak aipatu ditu Kortabarrak; zientzia eta teknologiaz mezua zabaltzea zaila dela, esparru hotza dela... Bere ustez, —hala bizi duelako dio— zientziaren eremua oso interes-

garria da, "futbol partiden albisteak egitea edo politikarien hitzak jasotzea baino interesgarriagoa. Zientzia bizitzaren muina da, norberari galderak egiteko aukera ematen du".

Alabaina, gizarte honetan, kultura zientifiko eta baita humanistiko gabezia nabarmena dela adierazi du: "Telebistan *reality show*ak eta kirolak ikusten dira, nahiz eta ikus-entzuleek askotan esan bestelako programak ikusten dituztela. Esate baterako, kultibo transgenikoei buruz ba al dakigu ezer? Baldin badakizu izan dezakezu era bateko edo besteko iritzia, eta iritzia baldin baduzu horren alde edo kontra egin dezakezu". Kultura zientifiko gabezia aipatu du Kortabarrak baina beste zulo bat ere esan digu: kontsumo aukera gutxi. Duela lau urtez geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat egunkaritan argitaratzen den zientzia eta teknologiar buruzko informazioa kalkulatu du Elhuyarrek. Batez beste artikuluen %2ak baino gehiagok ez du hitz egiten zientziaz.

Hori dena horrela izanda, Kortabariaren nahia masterrean bere ikasgaia hautatzen dutenak (hautazkoa baita) jakin-mina asetzeko intentzioz etortzea da. Oraindik ez du goitik behera prestatu irakasgaia, baina atal nagusiak aurreratu dizkigu:

- ✓ Kazetaritza zientifikoaren ezaugarriak.
- ✓ Zientzia eta teknologia gizareratzeko arazoak identifikatu eta eztabaidatu.
- ✓ Kazetariarentzako iturrien berri eman.
- ✓ Kazetaritza generoak azaldu zientziaren berezitasunak kontuan hartuta.
- ✓ Hainbat euskarritako diferentziak azaldu: papera, telebista...
- ✓ Hedabideez gain zientzia zabaltzeaz arduratzen direnen errepasoa, hala nola, museoak, parke teknologikoak...
- ✓ Euskal Herriko esperientzia dibulgazio zientifikoan.

56 irakasle arituko dira ikasgaiak ematen, horietatik 39 EHUkoak izango dira eta 26 kanpokoak. Hizkuntza gutxituei buruz hitz egitera Katalunia, Galizia eta Asturiastik etorriko dira irakasleak, Tarragonako, Santiagoko, eta Valladolideko unibertsitateetatik. Hizkuntza gutxituek toki berezia izango dute masterrean eta derrigorrezko ikasgaien artean bi, horiei buruz izango dira. Batetik, Europar Batasuneko hizkuntza gutxituetako mapa orokorra ikasiko dute, eta bestetik, Espainiako kasua aztertuko. Derrigorrezko ikasgai izango da baita ere Berridazketa tailerra eta Komunikabideetako euskara ikasgaia. Ramirez de la Piscinari galdetu diogu ea zer dela eta dauden hizkuntzari zuzenean lotutako hainbeste ikasgai derrigorrezkoak. Aitortu digu, oraindik ere, hainbat ikaslerentzat euskara bera

Ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte EITB, Berria, ARGIA, Elhuyar, Topagunea, Aldaketa 16, UEU, EHU eta Eusko Ikaskuntzan

menperatzea erronka dela. Hautazko ikasgaien artean askotarikoak daude: Ziberkazetaritza, Edizio digitala, Hedabide elektronikoak, Diseinu grafiko, Zientziaren dibulgazioa, Zinema-kritika... Aukera asko, baina Ramirez de la Piscina irakasleak bi esparru nabarmendu dizkigu. Batetik, zientziaren dibulgazioa, "ikasleak oraindik ere izutu egiten dira zientzia dibulgatzeaz hitz egiten hasten garenean". Bestetik,

master honetan garrantzi handia dauka Internet munduak, euskarri digitalak... teknologia berrien munduan, aro digitalean bizi baikara.

Masterrean era askotako ikasleek eta orain ikasle ez direnek eman dezakete izena. Kazetaritzan, Ikus-entzunezko Komunikazioan edota Publizitatea eta Harreman Publikoetan lizentziatu diren ikasleek sarbide zuzena izango dute. Komunikazio ikasketak egin ez dituztenek ere sarbidea izango dute, baina atari-proba gauditut beharko dute. Lizentziatu berri ez direnek ere, masterra egin dezakete, alegia, lanean ari diren profesionalek. ■

Masterrari buruzko informazio gehiago:
www.euskarazko-komunikazioa.info

Babeslea: Errenteriako Euskara Zerbitzua



Errenteriako Udala

euskarazko komunikabideen alde

